DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gizarte Ekintza
Acción Social

Easo, 41 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

# GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILU OROKORRA / CONSEJO SOCIAL DE ACCIÓN SOCIAL

## BILERA-AGIRIA / ACTA

**EGUNA / DIA:** 2022ko uztailaren 20a
**ORDUA / HORA:** 10:00
**LEKUA / LUGAR:** Udalbatzarraren Aretoa, Udaletxea / Salón de plenos, Casa Consistorial
**BATZAR MOTA / SESION:** Ohikoa / ordinaria.

**BERTARATUTAKOAK / PRESENTES**

ADEMGI- Gema Rodriguez
AFAGI - Koldo Aulestia
AGIPAD – Felix Sarasua
ARRATS – Amaia Lasheras
ASOCIACIÓN CONTRA EL CANCER – Josune Alkain
ARANSGI – José Montero
ASPACE – Jose Luis Madrazo
ATECE – Lourdes Carrasco
CARITAS -Itziar Subijana
CRUZ ROJA – Elena Luquín
ELKARTU – Maialen Sanchez
EMAUS – Iune Polo
GAZTEDI – Raul Giralde
GUREAK- Mariano Cortes
HAURRALDE FUNDAZIOA – Ainara Agirrre eta Patricia Ponce
HELDUEN HITZA
HURKOA – José Ignacio del Pozo
IRESGI – Ana Marin eta Koro Paredero
NAGUSILAN- Jesus Mari Zaldua
TELÉFONO DE LA ESPERANZA – Maite González
ZORROAGA- Pablo Garcia
EH BILDU – Olaia Duarte
ELKARREKIN TALDEA – Raisa Garcia
PP – Mikel Lezama
PSE-EE – Ane Oyarbide
BATZORDEBURUA- Aitziber San Roman
IDAZKARIA / SECRETARIA- Itziar Guillán
GIZARTE EKINTZAREN ZUZENDARIA / DIRECTOR DE ACCIÓN SOCIAL – Garikoitz Agote

**EGUNEKO GAI ZERRENDA/ORDEN DEL DÍA**

| | | |
|---|---|---|
| Aurreko bileraren akta irakurri eta, hala bada, onartzea. | 1 | Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión anterior. |
| Gizarte Ekintza arloari eragiten dieten partaidetza aurrekontuen proposamenak. | 2 | Información propuestas presupuestos participativos que afectan al Área de Acción Social |
| 2021ko Memoriaren aurkezpena. | 3 | Presentación de la Memoria 2021 |
| Donostian eskaintzen diren kaleko afarien inguruko azterketaren aurkezpena. | 4 | Presentación del estudio sobre las cenas que se ofrecen en Donostia en la calle. |
| ABEGI | 5 | ABEGI |
| ELKAR EKIN Enplegagarrritasunerako eta aktibazio inklusiborako Gipuzkoako estrategiaren aurkezpena. | 5 | Presentación de la estrategia ELKAR EKIN de Gipuzkoa de empleabilidad e inclusión social |
| Galde-eskeak. | 6 | Ruegos y preguntas. |

## ESAN-EGINAK / DESARROLLO DE LA REUNIÓN

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko bilkurako akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.**<br><br>Aurreko bilerako akta onartu egiten da.<br><br>**2. Gizarte Ekintza arloari eragiten dieten Partaidetza aurrekontuen proposamenak:**<br><br>Antiguako jubilatuen elkartea eraberritzea eta horren kostuaren informazioa ematen da.<br><br>**3. 2021 urteko Memoriaren aurkezpena**<br><br>Gizarte Ekintzako Zuzendariak memoria aurkezten du.<br>Gaztediko ordezkariak lokalen zesioen inguruan informazioa eskatzen du. Aurreko urteekin dauden aldeak jakin nahiko lituzke eta ondorengo urteetan aurreikusten direnak.<br>Batzordeburuak dio erabakiak hartzen diren bileretan berak ez duela parte hartzen beraz, erantzutea ez dagoela bere esku.<br><br>Gaztediko ordezkariak berriro ere galdetu du ekarpen ekonomikorik dagoen horretarako.<br>Gizarte Ekintzako Zuzendariak erantzun dio Udalak lokalak dituela eta eskaintzaren eta eskariaren arabera baloratzen dituela, eta aukerak baloratu ondoren banatzen dituela. Lagatako lokalak erabilerara egokitzen dira.<br>Zorroagako ordezkariak memoria osatutzat jo du, baina baliabideetan gehiegi zentratzen dela eta honoko datu hauek izatea gustatuko litzaiokeela gaineratu du:<br>• Irizpide pertsonala azaltzea: zenbat pertsonei zuzentzen zaizkien jarduerak.<br>• Bisitak egiten direla bai, baina ebaluazioa ez da azaltzen, eta lortutako emaitzen falta sumatzen du.<br><br>San Roman andreak erantzuten dio gizarte-langile bakoitzak excel batean betetzen dituela interbentzioak eta begiratuko duela. Zerbitzuen eta hauen emaitzei dagokionez, horiek kuantifikatu beharko lirateke.<br>Haurraldeko ordezkariak hartzen du parte galdetuz nola neurtu ditzakegun urtebetean | **1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión anterior**<br><br>Se aprueba el acta de la reunión anterior.<br><br>**2. Información propuestas presupuestos participativos que afectan al Área de Acción Social:**<br>Se informa de las obras y presupuesto de la remodelación del club de jubilados del Antiguo.<br><br>**3. Presentación de la Memoria 2021**<br><br>El Director de Acción Social presenta la memoria.<br><br>El representante de Gaztedi, en cuanto a la cesión de locales, pregunta la diferencia respecto a años anteriores y que previsión hay respecto a años futuros.<br><br>La Concejal contesta que en las reuniones al respecto no toma parte y que, por tanto, no dispone del dato de previsiones ni de locales libres.<br><br>Pregunta de nuevo el representante de Gaztedi si hay aportaciones económicas para la cesión de locales. Le responde el Director de Acción Social que el Ayuntamiento dispone de locales y valora la cesión en función de la oferta y la demanda y los reparte después de valorar las diferentes opciones. Los locales cedidos se adecúan al uso.<br>El representante de Zorroaga interviene valorando la memoria como completa pero añadiendo que se centra demasiado en los recursos y le hubiera gustado tener los siguientes datos:<br>• Explicar el criterio personal: a cuantas personas se dirigen los diferentes servicios.<br>• Se habla de las visitas pero no aparece, en su opinión la evaluación, echa en falta los resultados obtenidos.<br>La Sra. San Roman le contesta que cada trabajador social rellena un excel y que lo mirará. En cuanto a la evaluación de servicios y resultados, habría que cuantificar los mismos.<br><br>Interviene la representante de Haurralde preguntando como podemos medir los avances |

| | |
|---|---|
| egindako aurrerapenak. Kontuan hartuta familia berari hainbat arrazoiengatik eman dakiokeela arreta, hainbat eragilerengatik, eta beharrak hainbat alderditatik datozela; beraz, interesgarria litzateke bilakaera ikustea, adibidez, 3 urtera.<br>Zinegotziak erantzun dio onartuz interesgarria izango litzatekeela zeharka lan egitea, produktutik prozesura pasatzea alegia.<br>Haurraldeko ordezkariak berriz ere hitz egin du baliabideak optimizatzeko azken ideiarekin lan-taldeak sortzeko ideia zabalduz. | realizados en un año teniendo en cuenta que una misma familia puede ser atendida por distintos motivos, múltiples agentes y las necesidades provienen de diferentes aspectos, por tanto, sería interesante ver la evolución a, por ejemplo, 3 años.<br>La Concejal le contesta que efectivamente sería interesante trabajar de forma transversal pasando del producto al proceso.<br>La representante de Haurralde interviene de nuevo exponiendo la idea de crear grupos de trabajo con la idea final de optimización de recursos. |
| Arratseko ordezkariak etxebizitzen sarbidean dagoen itxarote-zerrenden inguruan informazioa eskatzen du, Lan Partekatuaren Plana Sustatze laguntzen eskaeren informazioa eskatzen du eta bazterketa arazoen aurrean medio nahiko ez daudela azpimarratzen du, batez ere etxebizitzaren arazoaren aurrean. Zinegotziak erantzuten dio kanpotik datozen familien kasuek oso konponbide zaila dutela ez dutelako egoera egonkorrik. Bertakoekin, epea dagoenez, esfortzua egiten da, horretarako Etxegintzarekin akordioa dago, Lan Partekatuaren Planaren eskaeren jaitsiera egon dela, adierazleak mantendu dira eta esleitutako pertsonala handitu. Donostian, etxebizitzaren arazoa larria da, ez dago etxebizitzarik eta arazo honi aurre egin behar zaio departamendu ezberdinen artean landuz. | La representante de Arrats pregunta por las listas de espera, las solicitudes de Apoyo al Plan de Trabajo Compartido y hace notar la insuficiencia de medios en exclusión para acceder a la vivienda. La Concejal le responde que los casos de familias que vienen de fuera tienen una solución muy difícil porque no tienen una situación estable. Con los autóctonos, como hay plazo, se hace un esfuerzo. Para eso hay un acuerdo con Etxegintza para trabajar con los ciudadanos que lo solicitan y que se ha dado un descenso en las solicitudes de Apoyo al Plan de Trabajo Compartido, los indicadores se han mantenido y ha subido el personal asignado. En San Sebastián, el problema de la vivienda es grave , no hay viviendas libres y habría que afrontar este problema mediante un trabajo entre diferentes departamentos. |
| **4. Donostian kalean eskaintzen diren afariei buruzko azterlanaren aurkezpena:** | **4. Presentación del estudio sobre las cenas que se ofrecen en Donostia en la calle:** |
| San Roman Zinegotziak zerbitzuaren historikoa eta nondik datorren azaldu du. Egoera aztertu zen eta, azterketa baten ondoren, ondorioak eta jardun-arloak atera ziren.<br>Caritaseko ordezkariak janariaren inguruan Villa Salia eta Hestiako zerbitzuan zein zerbitzu dauden aurreikusita galdetzen du. Zinegotziak erantzuten dio Hestia programan bazkariak aurreikusten dituela, baina zailtasun handiak dituzten pertsonengan dago zentratuta. Pertsona horiek toki normalizatuetara bideratzen dira bazkaltzeko baina arazoa kale egoeran urte askotan dauden pertsonengan dago; kasu horiek Abegira bideratzen saiatzen ari dira. Kasu horietan, Otorduak programak sendotu egingo | La Concejal San Roman explica el histórico del servicio y de dónde viene. Se analizó la situación y, tras un estudio, se sacaron las conclusiones y las áreas de actuación.<br>La representante de Cáritas, en cuanto a la comida, pregunta que servicios están previstos en Villa Salia y el servicio del Hestia. La Concejal le contesta que el programa Hestia contempla el servicio de comidas pero está centrado en personas con grandes dificultades. Se busca enviar a estas personas a comedores normalizados pero el problema está en las personas que llevan mucho tiempo sin hogar, estos casos se están intentando derivar a Abegi. El programa Otorduak se reforzará en estos casos.<br><br>La representante de EH Bildu menciona que en el |

da.

EH Bilduko ordezkariak dio ikerketan ez zirela boluntarioak kontuan hartu, janaria banatzen zutenen eta erabiltzaileen artean lotura oso garrantzitsua sortu da eta interesgarria litzatekeela hori landu izana. Otorduak programak teknologia erabilerara bideratzen ditu eta hau ez da egokia, bere ustetan, erabiltzaileen profila kontuan izanda. Jakin nahiko luke zer jarduera egingo diren janariaz gain. Inklusiora bideratutako zerbait egitea gustatuko litzaioke.

Zinegotziak erantzuten dio zaila dela gizarteratze prozesuak lantzea leku batetik bestera mugitzen ari diren pertsonekin. Azterketaren emaitzaren arabera, erabiltzaile gehienek 6 hilabete baino gutxiago ematen dituzte eta 6 hilabete horietatik aurrera ez dakigu non dauden. Zorroagako ordezkariak dio pasoko egoeran daudenen kasua zaila dela argi dagoela baina pertsona batzuek denbora gehiago ematen dutela, lotura egiteaz orduan zein arduratuko den galdetzen du, bigarrenean batez ere, baina baita lehenengoan ere. Halaber, adierazten du hasi zen boluntariotzari paper bat eman beharko litzaiokeela eta haien motibazioa aprobetxatu.

**5.- ABEGI etxea:**

Zinegotziak azaldu du araudi berria Kontseilura ekarri nahi zela, baina alegazio prozesuan dagoela, eta bihar amaituko dela; beraz, oraindik ez da onartu.
Aplikatzen ari den araudiak 18 urte ditu eta, besteak beste, behin behinekotasunaren gaia jasotzen da. Abegira bertaratzen den pertsonak, 3 egun eman ditzake gehienez eta datozen 3 hilabetetan ezin izango dute zerbitzua berriro erabili. Kasu batzuetan familiak gerturatzen dira eta, egoera horiei modu hobean aurre egiteko eraberritze lanak burutuko dira, gaur egun amankomuna den gune, 3 estantzia ezberdinetan bihurtuz.

Gaineratu duenez, aurreko araudiaren esparrutik kanpo bazeuden zenbait gai, hala nola zerbitzua jangela gisa erabiltzea, animaliak, etab. Legedi berriarekin, bi zerbitzu eskaintzen dira, bata

estudio no se tuvo en cuenta al voluntariado, repartían la comida y esto generó un vínculo importante y hubiera sido interesante haberlo trabajado. El programa Otorduak en su opinión dirige a los usuarios a la tecnología y esto no es adecuado teniendo en cuenta su perfil. Quisiera saber que actuaciones se van a realizar aparte de la comida. Le gustaría que se trabajara en la inclusión.

La Concejal le contesta que trabajar en la inclusión con personas flotantes es muy complicado. Teniendo en cuenta los resultados del análisis, la mayoría de personas usuarias permanecen menos de 6 meses en la ciudad, a partir de esos 6 meses no se sabe donde están. El representante de Zorroaga comenta que está claro que la situación de las personas de paso es complicada pero que hay gente que permanece más tiempo y pregunta quien se encargará de generar la vinculación en estos casos, en el segundo sobre todo pero también en el primero. También señala que habría que dar un papel al voluntariado que comenzó y aprovechar su motivación.

**5. ABEGI etxea:**

La Concejal interviene exponiendo que se pretendía traer al Consejo el nuevo reglamento pero está en proceso de alegaciones que termina mañana y, por tanto, todavía no está aprobada.
El reglamento que se viene aplicando tiene 18 años y en la misma se contemplan entre otros la cuestión de la temporalidad. Las personas que se acercan a Abegi pueden permanecer un máximo de tres días y no pueden volver a utilizar el servicio en los próximos 3 meses. Se dan casos en los que se acercan familias y éstas son atendidas en el anexo. En próximas fechas se van a realizar obras para mejorar el espacio del anexo, reconvirtiendo el actual espacio compartido en 3 estancias independientes.

Añade que había varios aspectos que quedaban fuera del marco del anterior reglamento, como la utilización del servicio como comedor, los animales etc. Con el nuevo reglamento, se ofrecen dos servicios, uno de día y otro de noche. También se regula el servicio a familias. Al principio se barajó la posibilidad de mantener el uso máximo en 3 días pero por unanimidad el Ayuntamiento decidió

| | |
|---|---|
| egunez eta bestea gauez. Familientzako zerbitzuaere arautu egiten da. Hasieran, gehieneko erabilera 3 egunetan mantentzeko aukera aztertu zen, baina Udalak aho batez erabaki zuen 5 egunera luzatzea.<br><br>EH Bilduko ordezkariak hezkuntza bermatzeko aukera txertatu dela araudian eta baita ere jenero ikuspegia txertatzea.<br><br>Zorroagako ordezkariak Abegiren memoria-datuei buruz esan du deigarria egin zaiola zenbat zaindari dauden. Zinegotziak erantzuten dio aurretik jasotako estrukturak direla, zaindariek formakuntza jasotzen dutela eta gehienek badutela esku-hartze sozialean. Ez da pertsonal egitura aldatzea pentsatu, baina bai formazioa bideratzea eta zenbait eginkizun eguneratzea.<br><br>Gizarte Ekintzako zuzendariak dio zerbitzua urtean 365 egunez ematen dela, egunean 24 orduz. Horri dagokionez, 2 hezitzaile, arduradun bat eta bi zaintzaile daude txanda bakoitzean. Zaintzaileek 24 orduko zerbitzua dutela kontuan hartuta, normala da langileen arteko aldea. Zorroagako ordezkariak berriro galdetzen du zein ordutegi duten hezitzaileek. Ordutegia goizez eta astean bi arratsaldetan egoten direla erantzuten dio Agote jaunak.<br><br>Arrats-eko ordezkariak esan du hezitzaile gutxi daudela eta bideratu daitezkeela, adibide bezela, Gaueko zerbitzuko erabiltzaileak. Zinegotziak bestetik aipatu du zaintzaileek lagun egingo dutela eta inplikatuta daudela.<br><br>Enplegagarritasun-estrategiaren barruan gizarteratzeko eta laneratzeko Foru Aldundiaren diru-laguntzen lerro berri bat aipatu da, eta Udalek hori eskatzeko aukera dutela. Kontuan hartuko dela erantzun du zinegotziak.<br><br>**6. ELKAR EKIN enplegagarritasunerako eta aktibazio inklusiborako Gipuzkoako estrategiaren aurkezpena:**<br><br>Gaia ez da garatzen<br><br>**7. Galderak eta eskaerak** | ampliarlo a 5 días.<br><br>La representante de EH Bildu añade que el reglamento incluye  la opción de garantizar el derecho a la educación y que se inserte la perspectiva de género.<br><br>El representante de Zorroaga comenta al respecto de los datos de Abegi de la memoria que le ha llamado la atención la cantidad de guardas que hay. La Concejal menciona al respecto que la estructura de guardas viene de años atrás y que los guardas reciben formación y que la mayoría la tienen  en intervención social. No se plantea un cambio en la estructura de personal pero sí dirigir la formación e incluso actualizar las funciones de los mismos.<br><br>El director de acción social comenta que el servicio se presta durante 365 días al año durante 24 horas al día. A este respecto, hay 2 educadores, 1 responsable y dos guardas por turno. Teniendo en cuenta que los guardas tienen un servicio de 24 horas, es normal la diferencia de personal. Pregunta el representante de Zorroaga cual es el horario de los educadores y le contesta el señor Agote que el horario es de mañanas y dos tardes por semana.<br><br>La representante de Arrats comenta que hay pocas educadoras y educadores y que se podrían canalizar, por ejemplo, las personas usuarias de Gaueko. La Concejal, por su parte, informa de que los guardas harán acompañamiento y que están implicados.<br><br>Se comenta que dentro de la estrategia de empleabilidad hay una nueva línea de subvenciones de la Diputación Foral para la inserción socio laboral y que los Ayuntamientos tienen la posibilidad de solicitarla. Contesta la concejala que se tendrá en cuenta.<br><br>**6.  Presentación de la estrategia ELKAR EKIN de Gipuzkoa de empleabilidad y exclusión social:** Este punto no se desarrolla.<br><br>**7. Ruegos y preguntas:**<br><br>No hay ruegos y preguntas. |

| | |
|---|---|
| Ez dago galdera edo eskaerarik. | |
| Bilkura 11:55ean amaitu da. | La sesión se da por concluida a las 11:55h |